

## 1.11 Ezkontza Zibilak egiteko zerbitzu publikoa

Espediente kodea: EZOZ

### Zer da? Zertarako da?

Hernaniko Udaletxeko Areto Nagusian, ezkontza zibila egiteko izapidea, Hernaniko Alkate edo Zinegotzien burututako ezkontza


### Nork eska dezake?

Ezkongaiek

### Aurkeztu beharreko agiriak

1. Ondoko datu hauek jasotzen dituen [eskaera-orri normalizatua](#) aurkeztu behar dute bi ezkongaiak:
  - a. Ezkongaien datuak, Ezkongaien NA, Pasaporte edo AIZren fotokopiak.
  - b. Ezkontza eguna eta ordua.
  - c. Ezkontzarako aukeratutako hizkuntza.
  - d. Bi lekukoren izendapena eta haien datuak. Lekukoen NA, Pasaporte edo AIZren fotokopiak.

### Nola eskatzen da?

 **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00**.

Astearte eta ostegunetan **08:00-19:00**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

📞 **Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

: **Internet:** [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) web orriaren bidez eskaera-orria bete eta Udaletxean aurkez dezakezu.

✉ **Posta arrunta:** ezin da postaz eskatu

### Zenbat kostatzen da?

Doan.

180 euroko fidantza jarri behar da Udal eraikina garbi mantentzeko ezkontza egunean . Fidantza hori udal zerbitzuek aldeko txostena eman ondoren itzuliko da ezkontza burutu eta 3 egunetik aurrera

### Prozeduraren epea

**Aurreikusitako epea:** 2 hilabete eskaera egunetik, beti ere, epe hori epaitegian egin beharreko tramitazioaren baitan dago

### Prozeduraren tramiteak

- [Eskaera](#) aurkeztu.
- Eskatzaileak Erregistro zibilera, (Hernaniko Bake Epaitegian edo bestelako Erregistro Zibiletan) zuzendu ezkontzaren tramiteak aurrera egiteko
  - Udalean Epaitegitik ezkontza ofizioa jaso
  - fidantza jarri eta fidantza bueltatzea eskatzeko [inprimakia](#) aurkeztu
  - Udaltzaingoari, ikuskatzaileei eta atezainei ezkontza egunaren eta behar diren baliabideen berri eman.
  - Txostenen arabera fidantza bueltatu edo ez bueltatzearen arrazoiak jakinerazpena

### Nork onartzen du

Alkateak

### Tramitatzeko ardura duen udal saila

Idazkaritza

Informazio gehiago: **943 337047** edo [idezkaritza@hernani.eus](mailto:idezkaritza@hernani.eus)

### Oharrak

- **Egutegia eta ordutegia-** Arau orokor gisa ezkontzak egingo dira hilabete bakoitzeko lehenengo eta hirugarren **larunbatean**, larunbata jaieguna bada izan ezik, **11:00etatik 13:00etara**, eta **astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara**.
- Ezkonkideek alkateak edo zein zinegotzik ezkondu nahi dituen adierazi ahalko du eta Udalak erantzun.

- Expedientea eskatzaileek Erregistro Zibilean, hasi behar dute eta derrigorrezkoa izango da Udalean, Erregistro Zibileko baimen edo ofizioa ezkontza aurretik jasotzea
- Ezkontza bertan behera geratzen bada, edo ezkontza expedientean edozein aldaketa egin behar bada idatziz Udalari jakinarazi beharko zaio erreserba ezeztatzeko
- Derrigorrezkoa da ezkongaietako bat behintzat Hernanin erroldaturik egotea, edo inoiz erroldaturik egon izana, edo Hernanin etxebizitzaren baten jabe izatea
- Debekatuta dago, ezkontza ekitalditik ateratzerakoan udaletxeko eskaileratan eta arkupeetan arroza edo horrelakorik botazea erantzunkizun osoa ezkongaiena da eta jarritako fidantzarekin erantzungo dute
- Ezkontza aretoa apaintzea, behin ezkontza burututa, erabilitako apaingarriak kendu beharko direlarik.

#### **Araudi aplikagarria**

- *2004-11-29KO Ezkontza Zibilak egiteko Hernaniko Udal Ordenantza (azken aldaketa 2017/11/28ko Udalbatza)*
- *Errregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak 1995-01-26ko emandako instrukzioa*